

5.2.1. Curriculumaren eta antolaketaren eremuak hobetzeko sustatu diren barne- eta kanpo- ebaluazioetan eskuratutako datuen erabilpena.

Barne- eta kanpo-ebaluazioen datuak eskola-komunitateari jakinarazten zaizkio, baina, ikastetxe-mailan, ez da prozedurarik ezartzen, ateratako ondorioak hobekuntza-prozesuak bultzatzeko erabil daitezten.

Diagnostikoaren ebaluazioaren ondoren egindako hobekuntza-planean jasotako proposamenak ez dira jasotzen ikastetxearen urteko plangintzan.

Zuzendaritzak zenbait prozedura ezarri ditu ebaluazioetatik datozen datuen analisia bermatzeko, ondorioak ateratzeko eta hobetzeko proposamenak egiteko.

Urteko memoriak jasotzen ditu ebaluazioetatik hartutako datuei buruz eragile desberdinek eta ikastetxeko antolaketa-egiturek egindako balioespen eta hobekuntza-proposamenak.

Hautemandako indargune eta ahulguneak oinarri hartuta, zuzendaritzak sustatzen du hobetzeko arlo nagusiak hautatzea, eta ikasteko eta irakasteko prozesuekin edo eskola-antolakuntzarekin lotutako jarduerak planifikatzen ditu Jarduera horiek urteko planean jasotako helburuetan ageri dira.

Prozedura batzuk ezarri dira datuak aztertzeke, ondorioak ateratzeko, hobetzeko proposamenak egiteko, lehenetsunak ezartzeko eta praktikan jartzeko, eta prozedura horien guztien jarraipena egiten du zuzendaritzak.

aipatu prozedurak eta jarraipena dokumentutan jasota daude.

Urteko planetan hobetzeko planteatutako helburu edo ekintzak:

- Ebaluazioetatik ateratako konklusioekin lotura zuzena dute.

- Curriculumaren eta antolaketaren alorrekoak dira.

- Ikastetxe barruan jarduera- eta eragin-eremu zabala dute.

- Gero eta aurrerabide handiagoa adierazten dute hobetzeko proposamenen ildotik.

Sistematizatu egin dira, eta ardurak ezarri dira, hartara ebaluazioetatik datozen datuen analisia, konklusioak ateratzea, hobetzeko proposamenak egitea, praktikan jartzea eta hartutako neurriak ebaluatzea bermatzeko.

Curriculumaren eta antolaketaren arloko aurrerabideak, ebaluazioetatik sortutako hobetzeen ezarpenaren ondorioz eginak, jasota daude urtebete baino iraunaldi luzeagoa duten ikastetxe-dokumentuetan. Horrenbestez, haien egonkortasuna bermatzen da.

5.2.2. Curriculumaren eta antolaketaren eremuak hobetzeak ikasleei ematen zaien hezkuntza-erantzunaren optimizazioan eragiten duela bermatzea.

Curriculumaren eta antolaketaren eremuan hartutako erabakiek ikasleei ematen zaien hezkuntza-erantzunean izan dezaketen eragina irakasle bakan batzuen bidez edo lantaldereen baten bidez etor daiteke, baina ikastetxeko zuzendaritzak ez dio bide horri heldu.

Curriculumaren eta antolaketaren alorreko alderdiak hobetzeko planifikatutako ekintzak abian jarri eta haien jarraipena egiten da.

Eskola-emaizak erreferentzia dira ikasleei emandako hezkuntza-erantzunaren hobetzean jarduera horiek duten eragina balioesteko.

Praktikan jarritako jarduerak ebaluatzen dira ikasleei ematen zaien hezkuntza-erantzuna hobetzen ari den jakiteko. Jarraipenaren eta kalitate-lorpenaren adierazleak ezarri dira, ikasleen oinarrizko gaitasunetan eta ikastetxearen antolaketan eta funtzionamenduan egiten diren aurrerabideak neurtzeko.

Ikastetxeko ikasle bakoitzaren bilakaera akademiko eta pertsonalaren jarraipena egiteko prozedurak ezarri dira, eta irakasle guztiak inplikaturako dira prozesu horretan.

Egiartzatzen da ebaluazioen ondorioz sortutako prozesuak eragina izan duela irakasleen irakaskuntza-prozesuen eta ikasleen ikaskuntza-prozesuen berrorientatzean, antolaketa-alorreko hobekuntzetan, eskola-emaizten hobetzean eta ikastetxeko giroan.

Ikastetxearen jardueraren etengabeko berrikuspena egiten da, ikasleen ikaskuntzak hobetzeko prozesuan eta hori guztia bideratzen duen eskola-antolaketan aurrera egiten dela bermatzeko. Berrikuspen horiek dokumentuetan jasota daude.